

### HUTSEN ZUZENKETA

2015eko ekainaren 18ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 115. zenbakian, iragarri egin zen Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatean euskara sustatzeko ekintza-plana eta zerbitzu honetan mankomunitatuko udaletako planak egin eta kudeatzeko kontratazio-espeditzea, eta hor huts bat aurkitu denez, ondoren argitaratzen da dagokion zuzenketa.

Hona hemen hutsa non dagoen: Administrazio Hitzarkin Berezien Orrietako hogeita bigarren hitzarkineko laugarren atalean, langileentzako arau bereziak jasotzen dituen horretan (30. orrialdea).

#### Hau dioen lekuan:

“ ...

Horregatik, kontratu honen xede diren zerbitzuak Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen bulegoetatik kanpo egin eta emango dira, Sopelan kokatutako lokal gaitu batean.

...”

#### Hau esan behar du:

“ ...

Horregatik, kontratu honen xede diren zerbitzuak Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen bulegoetatik kanpo egin eta emango dira.

...”

### CORRECCIÓN DE ERROR

Habiéndose advertido por parte de la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta un error administrativo relacionado con el expediente administrativo de contratación para la realización y gestión del Plan de Acción para la promoción del Euskera de la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta y de los planes de los municipios mancomunados a este servicio, anunciado en el Boletín Oficial de Bizkaia con fecha 18 de junio de 2015 con el núm. 115.

Cláusula vigesimosegunda, apartado cuarto del Pliego de Condiciones Administrativas Particulares referido a las reglas especiales respecto al personal (página 30).

#### Donde dice:

“ ...

Por ello, los servicios objeto del presente contrato se ejecutarán/prestarán fuera de las Dependencias de la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta, teniendo que prestarse las mismas en un local habilitado situado en el término municipal de Sopela.

...”

#### Debe decir:

“ ...

Por ello, los servicios objeto del presente contrato se ejecutarán/prestarán fuera de las Dependencias de la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta.

...”

Hortaz, aurkitutako administrazio-hutsa dela-eta, erabaki da, batetik, huts hori zuzendu eta dagokion iragarkia argitaratzea; eta, bestetik, egutegiko 15 eguneko beste epe bat ematea zerbitzu honetan interesa izan lezakeen edozeinek esleipen-eskaintza aurkeztu ahal izateko.

Sopelan, 2015eko ekainaren 24an.  
María Isabel Landa Gaubeka andrea,  
Mankomunitateko lehendakaria

Teniendo presente el error administrativo identificado, se acuerda corregir y publicar el presente anuncio y conceder nuevamente el plazo de 15 días naturales a los efectos de que cualquier interesado en el presente servicio pueda presentar oferta de adjudicación.

En Sopela, a 24 de junio de 2015.  
La Presidenta de la Mancomunidad, María Isabel Landa Gaubeka